



## GABONETAKO XXXI. IDAZLAN LEHIAKETA

### URRETXU eta ZUMARRAGA 2019

Urretxu eta Zumarragan, 2019ko abenduaren 13an, honako erabakia hartu du Idazlan Lehiaketako epaimahaiak:

#### **ERABAKIA:**

Saridunen izenak zeintzuk diren esan aurretik epaimahaiak ondokoa adierazi nahi du:

1. Maila batean zein bestean **partaidetza oso zabala** izan da eta lan askoren maila bikaina. Hori dela eta, benetan zaila izan da maila bakoitzeko hiru lan onenak aukeratzea.
2. Lan sarituak aukeratzeko orduan, **aukeraketa bi etapatan** egin da. Lehenengo etapan lan guztiak irakurri dira (219 eta 205); horrela, lan horien guztien artetik, txikien mailan 24 lan aurre-hautatu dira eta handien mailan 33. Segidan, bigarren irakurketa bat egin zaie lan aurre-hautatu horiei eta maila bakoitzean 3 onenak aukeratu dira.
3. Saririk gabe geratu diren **lan asko eta asko maila oso handikoak** izan dira baita ere, baina bigarren irakurketan xehetasunetan jarri da arreta eta horrela hartu da azken erabakia. Edozein kasutan, lan batzuk saritu eta besteak saririk gabe uztea ez da erraza izan.
4. Epaimahaiak bereziki **zoriondu** nahi ditu lehiaketan parte hartu duten haur guztiak, eta baita beraien gurasoak eta eskoletako irakasleak ere, haur horiengan idazteko zaletasuna sustatu eta bultzatzeagatik. Beste behin ere argi geratu da Zumarragan eta Urretxun maila handia dagoela eta hori bereziki poztekoa da, are gehiago lehiaketa honetara aurkeztu diren ipuin guztiak **euskaraz** idatziak izan direla kontuan hartuz.

#### **A. Taldea (L.H.ko 3. eta 4. mailakoak)**

##### **219 idazlan aurkeztuta**

GAIA: "Gabon haietan beste norbaitentzat eskatu nituen opariak."

1. **saria:** Maren Arregi Alkorta
2. **saria:** Enara Mitxelena Kerejeta
3. **saria:** Araitx Martinez Ayerbe

#### **B. Taldea (L.H.ko 5. eta 6. mailakoak)**

##### **205 idazlan aurkeztuta**

GAIA: "Urte berrian gauzak aldatzea nahiko nuke"

1. **saria:** Maialen Arratibel Urkiola
2. **saria:** Jon Calzada Kerejeta
3. **saria:** Laia Gomez Gantxegi

Eta horrela jasota gera dadin, akta hau izenpetzen dute.